Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abenduaren 30a, ostirala — 247 — Viernes, a 30 de diciembre de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

**«KABIA» FORU ORGANISMO AUTONOMOA**

XXII. ERANSKINA

*Egonkortzeko hautaketa prozesu bereziaren oinarri espezifikoak, KABIA foru organismo autonomoko «Arlo Juridiko eta Kontratazio arloko arduradun» plaza 1 lehiaketa-oposizio bidez betetzeko (EP2022/21/LO)*

Oinarri espezifiko hauek KABIA foru organismo autonomoko (aurrerantzean, «KABIA») enplegu publikoa egonkortzeko hautaketa prozesuen oinarri orokorretan (I. eranskina) xedatutakoa osatzen dute.

1. Plazaren ezaugarriak

1.1. Deitutako «Arlo Juridiko eta Kontratazio arloko arduradun» plaza KABIAko langile funtzionarioen plantillakoa da.

1.2. Deitutako plaza A1 sailkapen azpitaldean sailkatzen da.

1.3. Deialdiko plazak lanaldi osoa du.

1.4. Funtzioak

a. Oinarrizko funtzioa

- KABIAren segurtasun juridikoa bermatzea eta Arlo Juridikoa eta Kontratazioa zuzentzea.

b. Funtzio zehatzak

- Estrategiaren definizioan eta ebaluazioan parte hartu eta bere arloko politikak proposatu, garatu eta ebaluatu.

- Kontratazio plana proposatu, kontratazio espedienteen izapidetzea, jarraipena eta kontrola egiten direla bermatu eta plana exekutatu, gainontzeko arloekin elkarlanean. Kontratazio mahaiko kide izan.

- Hitzarmenen kudeaketa.

- KABIAren funtzionamendurako araudia prestatu, proposatu eta garatzen lagundu.

- Ondare erantzukizuneko eskaerak izapidetu.

- Datu pertsonalen babesa betetzen dela ziurtatu.

- Errekurtso eta erreklamazioen ebazpenak proposatzea.

- Kudeaketa juridikoaren eta kontratazioaren barruko eginkizun, proiektuak eta prozedurak garatu.

**ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL «KABIA»**

ANEXO XXII

*Bases específicas del proceso selectivo especial de estabilización para la provisión, mediante el sistema de concurso-oposición, de 1 plaza de «Responsable del Área Jurídica y de Contratación» del organismo autónomo foral KABIA (EP2022/21/LO)*

Las presentes bases específicas completan lo dispuesto en las bases generales (anexo I) de los procesos selectivos de estabilización de empleo público del organismo autónomo foral KABIA (en adelante, «KABIA»).

1. Características de la plaza

1.1. La plaza de «Responsable del Área Jurídica y de Contratación» convocada pertenece a la plantilla de personal funcionario de KABIA.

1.2. La plaza convocada se clasifica en el subgrupo de clasificación A1.

1.3. La plaza convocada tiene asignada una jornada completa.

1.4. Funciones

a. Función básica

- Garantizar la seguridad jurídica y dirigir el Área Jurídica y de Contratación.

b. Funciones específicas

- Participar en la definición y evaluación de la estrategia y proponer, desarrollar y evaluar las políticas de su área.

- Proponer, garantizar que se realizan las funciones propias del área en la tramitación de expedientes de contratación y ejecución del plan en colaboración con el resto de áreas. Miembra/o de la mesa de contratación.

- Gestión de convenios.

- Elaborar, proponer y colaborar en el desarrollo de la normativa de funcionamiento de KABIA.

- Tramitar solicitudes de responsabilidad patrimonial.

- Asegurar el cumplimiento de la protección de datos de carácter personal.

- Proponer resoluciones de recursos y reclamaciones.

- Desarrollar funciones, proyectos y procedimientos de gestión jurídica y contratación.

EK\CV GAO-I-2022-08748

- Bere arloko gaietan barne laguntza eta aholkularitza eman, segurtasun juridikoa bermatuz

- Organismo autonomoko gobernu eta zuzendaritza organoei laguntza juridikoa ematea. Gobernu Batzordeko idazkaritza.

- Esleitutako materialak, pertsonak, aurrekontuak, kontratuak eta bere esku jarritako bestelako baliabideak kudeatu.

- Bere ardura eta funtzioekin zerikusia duen edozein hobekuntza eta lankidetza sustatu.

- Lanpostuarekin eta kategoriarekin lotura duen beste edozein funtzio, ardura ematen zaionean.

2. Deitutako plaza

2.1. Deitutako plazarako sarbidea txanda irekikoa izango da, sarbide orokorreko modalitatearen bidez.

2.2. Deitutako plazari lotutako lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna (HE) du eta igarota du derrigortasun data.

3. Lan poltsa

Hautaketa prozesu honek lan poltsa sortuko du (17. oinarri orokorra).

4. Parte hartzeko baldintzak

a. Baldintza orokorrak:

- Txanda irekia, sarbide orokorreko modalitatea: 3.1. oinarri orokorrean adierazitakoak.

b. Baldintza espezifikoak:

- Eskatutako titulazioa: Zuzenbideko unibertsitate Gradua edo Lizentzia.

- Euskara: derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizuna (3.1.f. eta 11. oinarri orokorrak).

Hala ere, deialdi honen ondorioetarako soilik, 3. hizkuntza eskakizuna duen izangairen batek bete ahal izango du deialdiko plaza, baldin eta ezin bada bete 4. hizkuntza eskakizuna duen izangairen batekin.

- B gidabaimena.

5. Plazari lotutako lanpostua esleitzeko baldintza espezifikoak

Oinarri espezifiko hauetako 10. atalean adierazitako lanpostuak ez du baldintza espezifikorik.

6. Egonkortze mota

Hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa izango da (22. oinarri orokorra).

6.1. Oposizio fasea

Oposizio fasea 22.3 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko da, eta gehienez 150 puntu lortu ahal izango dira.

- Apoyo y asesoramiento interno en materias propias de su área garantizando la seguridad jurídica.

- Prestar asistencia jurídica a los órganos de gobierno y dirección del organismo autónomo. Secretaría de la Junta de Gobierno.

- Gestionar los materiales, personas, presupuestos, contratos y otros recursos puestos a su disposición.

- Promover cualquier mejora y colaboración relacionada con su responsabilidad y funciones.

- Cualquier otra función que se le encomiende relacionada con el puesto y categoría.

2. Plaza convocada

2.1. El acceso a la plaza convocada se realizará por turno libre, mediante la modalidad de acceso general.

2.2. El puesto al que se asocia la plaza convocada tiene asignado el perfil lingüístico (PL) 4 de euskera, con fecha de preceptividad vencida.

3. Bolsa de trabajo

El presente proceso selectivo generará bolsa de trabajo (base general 17).

4. Requisitos de participación

a. Requisitos generales:

- Turno libre, modalidad de acceso general: los señalados en la base general 3.1.

b. Requisitos específicos:

- Titulación requerida: Grado universitario o Licenciatura en Derecho.

- Euskera: perfil lingüístico 4 preceptivo (bases generales 3.1.f y 11).

No obstante, a los únicos efectos de la presente convocatoria, la plaza convocada podrá ser provista por una persona aspirante con perfil lingüístico 3 en el caso de que no pueda proveerse con una persona aspirante con perfil lingüístico 4.

- Permiso de conducir B.

5. Requisitos específicos para la adjudicación del puesto de trabajo asociado a la plaza

El puesto señalado en el apartado 10 de las presentes bases específicas no tiene requisitos específicos de provisión.

6. Tipo de estabilización

El sistema de selección será el de concurso-oposición (base general 22).

6.1. Fase de oposición

La fase de oposición se regirá por lo establecido en la base general 22.3 y se valorará hasta un máximo de 150 puntos.

EK\CV GAO-I-2022-08748

Deitutako plaza honetako oposizio fasean, 22.3.1. oinarri orokorrean adierazitako arau orokorrez gain, 22.3.6. oinarri orokorrean aurreikusitako berezitasunak aplikatuko dira, hari lotutako postua erantzukizuneko postua den heinean.

Hortaz, deitutako plaza honetara sartzeko oposizio fasean idatzizko ariketa eta gaitasunen ebaluazio froga egingo dira, 22.3.6 oinarri orokorrean araututako puntuazio-sistema aintzat hartuz.

Ariketaren gai zerrenda oinarri espezifiko hauen 10. atalaren ondoren dago jasota.

6.2. Lehiaketa fasea: baloratu beharreko merezimenduak eta horien baremoa

Merezimenduak parte hartzeko eskabidean alegatu beharko dira, 6. oinarri orokorraren 1. eta 4. ataletan ezarritakoaren arabera.

Merezimendu hauek baloratuko dira, gehienez ere, 100 puntu lortuz:

6.2.1. Lan esperientzia

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Kidegoei eta Eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, honako hauek baloratuko dira: alde batetik, esperientzia espezifiko gisa, deialdia egin duen Administrazioan berariaz emandako zerbitzuak, esperientzia orokorrarekiko bereizia eta osagarria, eta, bestetik, esperientzia orokor gisa, edozein Administrazio publikotan emandako zerbitzuak, deialdia egin duen Administrazioan barne.

Lan esperientzia gehienez 60 punturekin baloratuko da, honako baremo honen eta 21.4.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera:

- Lan esperientzia KABIA foru organismo autonomoan (esperientzia espezifikoa):

Gehienez 40 puntu emango dira (0,476 puntu hilabete oso bakoitzeko), A1 sailkapen azpitaldeko arlo juridiko eta kontratazio arloko arduradun lanpostuan KABIAn eskuratutako lan esperientziagatik.

- Lan esperientzia edozein Administrazio Publikotan (esperientzia orokorra):

Gehienez 20 puntu emango dira (0,238 puntu hilabete oso bakoitzeko), edozein Administrazio Publikotan, KABIAn barne, arlo juridiko eta kontratazio arloko arduradun lanpostu batean edo, deitutako plazaren funtzioen eduki bereko lanpostuetan (A1 sailkapen azpitaldekoetan edo parekatuetako lanbide kategoriakoetan) izandako lan esperientzia.

6.2.2. Merezimendu akademikoak edo bestelakoak

6.2.2.1. Prestakuntza

En la fase de oposición de la plaza convocada, además de las normas generales recogidas en la base general 22.3.1, también resultarán de aplicación las particularidades previstas en la base general 22.3.6, en tanto que el puesto asociado a la misma es un puesto de responsabilidad.

Por lo tanto, la fase de oposición para acceder a la plaza convocada estará formada por la realización de un ejercicio escrito y una prueba de evaluación de competencias, todo ello conforme al sistema de puntuación contemplado en la base general 22.3.6.

El temario sobre el que versará el ejercicio se acompaña a continuación del apartado 10 de las presente bases específicas.

6.2. Fase de concurso: méritos a valorar y su baremo

Los méritos se deberán alegar en la solicitud de participación de acuerdo con lo establecido en la base general 6, apartados 1 y 4.

Se valorarán, hasta un máximo de 100 puntos, los siguientes méritos:

6.2.1. Experiencia profesional

De acuerdo con lo dispuesto en la disposición adicional primera de la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi se valorarán, por una parte, como experiencia específica, los servicios prestados en la Administración convocante de manera específica, diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, y, por otra parte, como experiencia general, los servicios prestados en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante.

La experiencia profesional se valorará hasta un máximo de 60 puntos de acuerdo con el siguiente baremo y lo dispuesto en la base general 21.4.1:

- Experiencia profesional en el organismo autónomo foral KABIA (experiencia específica):

Se valorará, hasta un máximo de 40 puntos, a razón de (0,476 puntos por mes completo), la experiencia profesional adquirida en KABIA en el desempeño del puesto de trabajo de responsable del área jurídica y de contratación perteneciente al subgrupo de clasificación A1.

- Experiencia profesional en cualquier Administración Pública (experiencia general):

Se valorará, hasta un máximo de 20 puntos, a razón de 0,238 puntos por mes completo, la experiencia profesional adquirida en cualquier Administración Pública, incluida KABIA, en el desempeño de un puesto de trabajo de responsable del área jurídica y de contratación o de puestos de contenido igual al de las funciones de la plaza convocada pertenecientes al subgrupo de clasificación A1 o a una categoría profesional asimilada.

6.2.2. Méritos académicos u otros

6.2.2.1. Formación

EK\CV GAO-I-2022-08748

Merezimendu honen ondorioetarako, titulu berak egiaztatu ahal izango ditu bai maila akademiko handiagoa bai jakintza-adar jakin bateko titulazio akademiko ofiziala, betiere oinarri honetan eta 21.4.4 oinarri orokorrean kasu bakoitzerako jasotako baldintzak betetzen baditu.

a) Maila akademiko handiagoa (gehienez, 10 puntu).

Gehienez, 10 puntu emango dira doktore titulua izateagatik.

b) Jakintza-adar jakin bateko titulazio akademiko ofizialak (gehienez, 10 puntu).

21.4.4 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, eta izangaiak prozesuan parte hartzeko aukera ematen duen titulazioaz bestelakoa bada, gehienez 10 punturekin baloratuko da lizentzia, MECESko 3. mailako unibertsitate gradu edo unibertsitate masterreko titulua izatea Gizarte- eta Lege-Zientziak jakintza-adarrean.

6.2.2.2. Hizkuntzak

Oinarri orokorrek 21.4.2 atalean ezarritakoaren arabera baloratuko da ingelesa eta frantsesa jakitea, gehienez 10 punturekin, baremo honen arabera:

- B2 maila Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan, 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko, eta gehienez ere 5 puntu.

- C1 maila edo altuagoa Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan, 5 puntu hizkuntza bakoitzeko, eta gehienez ere 10 puntu.

6.2.2.3. Informatikako ezagutzak

Oinarri orokorrek 21.4.3 atalean ezarritakoaren arabera baloratuko dira informatikako ezagutzak (IT Txartela edo baliokidea), gehienez 10 punturekin, baremo honen arabera:

- Microsoft Word 2003/2007/2010, oinarrizkoa edo aurreratua: 5 puntu.

- Microsoft Excel 2003/2007/2010, oinarrizkoa edo aurreratua: 5 puntu.

7. Emakumeen aldeko lehentasun klausula

Azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, emakumeei ez zaie lehentasunik emango, arduradun lanpostuetan % 40 baino gehiago baitira.

8. Parte hartzeko tasaren ordainketa

Oinarri orokorren 6.3 atalean jasotakoari jarraituz, tasaren ordainketa ondorengo banku kontuan egin beharko da:

A efectos del presente mérito, un mismo título podrá acreditar tanto la posesión de un nivel académico superior como la posesión de una titulación académica de carácter oficial de una concreta rama de conocimiento, siempre que cumpla los requisitos recogidos en la presente base y la base general 21.4.4 para cada caso.

a) Nivel académico superior (máximo 10 puntos).

Se valorará con un máximo de 10 puntos estar en posesión de un título de doctor/a.

b) Titulaciones académicas de carácter oficial de una concreta rama de conocimiento (máximo 10 puntos).

De acuerdo con lo establecido en la base general 21.4.4 y siempre que sea una titulación distinta de la que permita a la persona aspirante participar en el proceso, se valorará hasta un máximo de 10 puntos estar en posesión de un título de licenciado/a, grado universitario de nivel 3 MECES o máster universitario en la rama de conocimiento de Ciencias Sociales y Jurídicas.

6.2.2.2. Idiomas

Se valorará, de acuerdo con lo establecido en la base general 21.4.2, el conocimiento de los idiomas inglés y francés, hasta un máximo de 10 puntos, de acuerdo con el siguiente baremo:

- Nivel B2 del Marco Común Europeo de Referencia de Idiomas, a razón de 2,5 puntos por idioma, hasta un máximo de 5 puntos.

- Nivel C1 o superior del Marco Común Europeo de Referencia de idiomas, a razón de 5 puntos por idioma, hasta un máximo de 10 puntos.

6.2.2.3. Conocimientos de informática

Se valorarán, de acuerdo con lo establecido en la base general 21.4.3, los conocimientos de informática (IT Txartela o equivalente), hasta un máximo de 10 puntos, de acuerdo con el siguiente baremo:

- Microsoft Word 2003/2007/2010, básico o avanzado: 5 puntos.

- Microsoft Excel 2003/2007/2010, básico o avanzado: 5 puntos.

7. Cláusula de prioridad a favor de las mujeres

En caso de empate en la puntuación final no se dará prioridad a las mujeres, toda vez que están representadas en más de un 40 % en los puestos de responsabilidad.

8. Pago de la tasa de participación

De acuerdo con lo previsto en el apartado 6.3 de las bases generales, el pago de la tasa se realizará en la siguiente cuenta bancaria:

ES70 2095 0611 0091 2210 7873 (Kutxabank)

Kontzeptu gisa deialdiaren kodea adierazi beharko da (kasu honetan, EP2022/21/LO) eta, ondoren, izangaiaren NAN zenbakia (letra barne):

Deberá indicarse como concepto el código de la convocatoria (en este caso, EP2022/21/LO) y seguidamente el número de DNI (incluida la letra) de la persona aspirante:

EP2022/21/LO_ _ _ _ _ _ _ _ _

9. Praktikaldia

13. eta 14. oinarri orokorretan xedatutakoari jarraikiz, plaza honetara karrerako funtzionario gisa sartzeko proposatu den pertsonak praktikaldi bat gainditu beharko du, salbu eta 13. oinarri orokorreko azken paragrafoan deskribatutako egoeran badago hautatutako pertsona.

10. Hautaketa prozesuaren bidez bete beharreko lanpostua

Hautaketa prozesuaren bidez bete beharreko lanpostua ondoren adierazitakoa da:

9. Periodo de prácticas

De acuerdo con lo dispuesto en las bases generales 13 y 14, la persona que haya sido propuesta para acceder como funcionaria de carrera a la presente plaza deberá superar un periodo de prácticas, salvo que concurra en la misma la circunstancia descrita en el último párrafo de la base general 13.

10. Puesto de trabajo a proveer por medio del proceso selectivo

El puesto a proveer por medio del proceso selectivo es el indicado a continuación:

| *Kodea Código* | *Lantokia Centro de trabajo* | *Izena Denominación* | *Plaza kopurua Número plazas* | *HE PL* | *Lan kontratupeko langilea (L) edo funtzionarioa (F) Personal laboral (L) o funcionario (F)* | *Baldintza espezifikoa Requisito específico* | *Arloa Área* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 01 098 | Donostia | Arlo Juridiko eta Kontratazio arloko arduraduna Responsable del Área Jurídica y de Contratación | 1 | 4 | F | B gidabaimena Permiso de conducir B | Juridikoa eta Kontratazioa Jurídico y Contratación |

GAI ZERRENDA

1. 1978ko Konstituzioa. Konstituzioaren printzipioak: zuzenbide estatu sozial eta demokratikoa. Espainiako Konstituzioaren balio gorenak.

2. Eskubide eta askatasunen erregulazioa Konstituzioan. Oinarrizko eskubideak babesteko eta bermatzeko erregimena. Eskubideak etetea.

3. Toki administrazioa Konstituzioan. Autonomia printzipioa: esanahia eta irismena.

4. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak. Euskal Autonomia Erkidegoaren botereak.

5. Lurralde Historikoak Euskal Herriko Autonomia Estatutuan. 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzkoa.

6. Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Gipuzkoako Batzar Nagusien eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremanak. Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa: I. eta IV. tituluak. 1/1987 Legea, martxoaren 27koa.

7. Gipuzkoako Foru Aldundia. Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa: Atariko titulua, II., III. eta V. tituluak eta lehenengo xedapen gehigarria.

8. Legea. Kontzeptua eta ezaugarriak. Lege motak. Lege Organikoa eta Lege Arrunta. Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeak. Erregelamendua: erregelamenduak egiteko ahala. Legearen eta erregelamenduaren arteko harremanak. Legezkotasun printzipioa

TEMARIO

1. La Constitución de 1978. Los principios constitucionales: el Estado social y democrático de derecho. Los valores superiores de la Constitución.

2. La regulación de los derechos y libertades en la Constitución. Régimen de protección y garantía de los derechos fundamentales. Suspensión.

3. La administración local en la Constitución. El principio de autonomía: significado y alcance.

4. El Estatuto de Autonomía del País Vasco. Las competencias del País Vasco. Los poderes del País Vasco.

5. Los Territorios Históricos en el Estatuto de Autonomía del País Vasco. La Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos.

6. Las Juntas Generales de Gipuzkoa. Las relaciones entre las Juntas Generales y la Diputación Foral. Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa: Títulos I y IV. Ley 1/1987, de 27 de marzo.

7. La Diputación Foral de Gipuzkoa. Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa: Títulos preliminar, II, III Y V, y disposición adicional primera.

8. La ley. Concepto y caracteres. Tipos de leyes. Ley Orgánica y Ley Ordinaria. Leyes estatales y autonómicas. El Reglamento: la potestad reglamentaria. Las relaciones entre la ley y el reglamento. El principio de legalidad

EK\CV GAO-I-2022-08748

9. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa: eremua, or- ganoak eta eskumenak. Administrazioarekiko au- zien jurisdikzioko alderdiak. Errekurritu daitezkeen egintzak eta xedapenak. Prozedura motak. Kautela neurriak eta epaiak betearaztea.

9. El orden jurisdiccional contencioso-administrativo: ámbito, órganos y competencias. Las partes en la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. Actos y disposiciones recurribles. Tipos de procedimientos. Medidas cautelares y ejecución de sentencias.

10. Urriaren 1eko 39/2015 Legea. Atariko titulua. Xedapen orokorrak. I. titulua. Prozeduran interesdun direnak. II. titulua. Administrazio publikoen jarduera.

10. Ley 39/2015, de 1 de octubre. Título preliminar. Disposiciones generales. Título I. De los interesados en el procedimiento. Título II. De la actividad de las Administraciones Públicas.

11. Urriaren 1eko 39/2015 Legea. III. titulua. Administrazio-egintzak. V. Titulua. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

11. Ley 39/2015, de 1 de octubre. Título III. De los actos administrativos. Título V. De la revisión de los actos en vía administrativa.

12. Urriaren 1eko 39/2015 Legea. IV. titulua. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak.

12. Ley 39/2015, de 1 de octubre. Título IV. De las disposiciones sobre el procedimiento administrativo común.

13. Urriaren 1eko 39/2015 Legea. VI. titulua. Legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahala.

13. Ley 39/2015, de 1 de octubre. Título VI. de la iniciativa legislativa y de la potestad para dictar reglamentos y otras disposiciones.

14. Urriaren 1eko 40/2015 Legea. Atariko titulua. I. eta II. kapituluak. II. titulua. I. kapitulua.

14. Ley 40/2015, de 1 de octubre. Título preliminar. Capítulos I y II. Título II. Capítulo I.

15. Urriaren 1eko 40/2015 Legea. Atariko titulua. V. kapitulua. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa.

15. Ley 40/2015, de 1 de octubre. Título preliminar. Capítulo V. Funcionamiento electrónico del sector público.

16. Urriaren 1eko 40/2015 Legea. . Atariko titulua. Vi, kapitulua. Hitzarmenak.

16. Ley 40/2015, de 1 de octubre. Título preliminar. Capítulo VI. De los convenios.

17. Urriaren 1eko 40/2015 Legea. III. titulua. Administrazioen arteko harremanak.

17. Ley 40/2015, de 1 de octubre. Título III. Relaciones interadministrativas.

18. Zehatzeko ahala. Funtsezko alderdiak (40/2015 Legea) eta prozedurazko alderdiak (39/2015 Legea).

18. Potestad sancionadora. Aspectos sustantivos (Ley 40/2015) y de procedimiento (Ley 39/2015).

19. Zehatzeko ahala. Otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

19. Potestad sancionadora. Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

20. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa. Xedea eta aplikazio eremua. Negozio eta kontratu salbuetsiak. Kontratu moten zehaztapena. Erregulazio harmonizatupeko kontratuak. Kontratu administratiboak eta kontratu pribatuak.

20. Los contratos del sector público. Ley 9/2017, de 8 de noviembre. Objeto y ámbito de aplicación. Negocios y contratos excluidos. Delimitación de los tipos contractuales. Contratos sujetos a una regulación armonizada. Contratos administrativos y contratos privados.

21. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa. Sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen elementu egituratzaileak. Sektore publikoaren kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Alderdiak kontratuan. Kontratuaren xedea, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, balio zenbatetsia, prezioa eta prezioaren berrikuspena. Berme exijigarriak sektore publikoaren kontratazioan.

21. Los contratos del sector público. Ley 9/2017, de 8 de noviembre. Configuración general de la contratación del sector público y elementos estructurales de los contratos. Disposiciones generales sobre la contratación del sector público. Partes en el contrato. Objeto, presupuesto base de licitación, valor estimado, precio del contrato y su revisión. Garantías exigibles en la contratación del sector público.

22. Sektore publikoko kontratuak. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa. Administrazio publikoen kontratuak. Xedapen orokorrak. Administrazio publikoen kontratu mota desberdinak.

22. Los contratos del sector público. Ley 9/2017, de 8 de noviembre. De los contratos de las Administraciones Públicas. Disposiciones generales. De los distintos tipos de contratos de las Administraciones Públicas.

23. Obra eta zerbitzuen azpikontratazioa. Langileen lagapena. Enpresaren ondorengotza. Enplegatzailearen subrogazioa.

23. Subcontratación de obras y servicios. Cesión de trabajadores/as. Sucesión de empresa. Subrogación del/de la empleador/a.

24. Administrazio publikoen zerbitzuko langileak: tipologia. Eskubideak eta betebeharrak.

24. El personal al servicio de las administraciones públicas: tipología. Derechos y deberes.

EK\CV GAO-I-2022-08748

25. Enplegatu publikoen diziplina araubidea.

26. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

27. Administrazio Publikoen ondare-erantzukizuna. 40/2015 Legea. Atariko tituluaren IV. kapitulua. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna. 39/2015 Legea. Prozedura berezitasunak.

28. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa. Xedapen orokorrak. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak. Eskubide digitalak bermatzea.

29. 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearena. Foru sektore publikoa. Gipuzkoa ko Foru Ogasunaren eskubideak eta betebeharrak. Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrak; irismen subjektiboa eta edukia; aurrekontuak egitea eta onestea; aurrekontu kredituak eta horien aldaketak; aurrekontuak kudeatzea eta likidatzea.

30. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa: I eta II. tituluak.

31. 4/2014 Foru Araua, otsailaren 6koa, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa. 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan. I. titulua. Xedapen orokorrak. II. titulua. Erakundearen zuzentasuna.

32. Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea.

33. Kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua.

34. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa. Atariko titulua. Euskal herri administrazioen eta aginteen jarduketan genero ikuspegia integratzeko neurriak. 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. Atariko titulua. III. titulua, VI. kapitulua.

35. 12/2014 Foru Araua, azaroaren 6koa, zeinaren bidez sortzen baita «Kabia» izeneko foru organismo autonomoa, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko.

36. 46/2014 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, «Kabia» Foru Organismo Autonomoaren Estatutuak onartzekoa.

37. Kabia foru organismo autonomoko Plan Estrategikoa 2020-2023.

38. Hizkuntza berdintasunaren kudeaketa KABIAn. Zentroen izaera, lanpostuak eta lehentasunak. Jarraibidea. Pertsonengan oinarritutako arreta eta hizkuntzen kudeaketa.

39. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren antolamendua. Administrazio Publikoen eskumenak. Ekimen pribatuaren esku hartzea. Ikuskaritza eta arau hausteen eta zehapenen araubidea.

25. Régimen disciplinario del personal.

26. Ley 10/1982 de 24 de noviembre, Básica de la normalización del uso del Euskera.

27. Responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas. Ley 40/2015. Capítulo IV del Título Preliminar. De la responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas. Ley 39/2015. Especialidades de procedimiento.

28. Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Disposiciones generales. Principios de protección de datos. Derechos de las personas. Garantía de los derechos digitales.

29. Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Sector público foral. Derechos y obligaciones de la Hacienda Foral de Gipuzkoa. Presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa: alcance subjetivo y contenido; elaboración y aprobación de los presupuestos; los créditos presupuestarios y sus modificaciones; gestión y liquidación de los presupuestos.

30. Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno: títulos I y II.

31. Norma Foral 4/2014, de 6 de febrero, de transparencia y acceso a la información pública. Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Título I. Disposiciones generales. Título II. Integridad institucional.

32. Código Ético y de Buena Gestión del Empleo Público Foral de Gipuzkoa.

33. Código de Conducta y marco de integridad institucional aplicable a la contratación pública.

34. Ley 4/2005, de 18 de febrero, de igualdad de mujeres y hombres. Título preliminar. Medidas para la integración de la perspectiva de género en la actuación de los poderes y las Administraciones Públicas vascas. Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Título preliminar. Título III, Capítulo VI.

35. Norma Foral 12/2014, de 6 de noviembre, por la que se crea el organismo autónomo foral «Kabia» para la gestión, prestación y ejecución de servicios sociales.

36. Decreto Foral 46/2014, de 22 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos del Organismo Autónomo Foral «Kabia».

37. Plan Estratégico 2020-2023 del organismo autónomo foral Kabia.

38. Gestión de la Igualdad Lingüística en KABIA. Carácter de los centros, puestos de trabajo y prioridades. Instrucción. Atención centrada en las personas y la gestión lingüística.

39. Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. Disposiciones generales. Prestaciones y servicios. Organización del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Competencias de las Administraciones Públicas. Intervención de la iniciativa privada. Inspección y régimen de infracciones y sanciones.

EK\CV GAO-I-2022-08748

40. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Adineko pertsonentzako prestazioak eta zerbitzuak.

41. Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituena

42. 126/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa. Xedapen orokorrak. Eskakizun funtzionalak. Langile-eskakizunak.

43. Maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretua, adineko pertsona ezinduentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak zehazten dituena. 8/2021 Foru Dekretua, ekainaren 29koa.

44. 7/2015 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena.

45. 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituena. I., III. eta V. tituluak.

Donostia, 2022ko abenduaren 22a.-Kabiako Gobernu Batzordeko idazkaria. (8748)

40. Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. Prestaciones y servicios para personas mayores.

41. Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

42. Decreto 126/2019, de 30 de julio, de centros residenciales para personas mayores en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Disposiciones generales. Requisitos funcionales. Requisitos de personal.

43. Decreto Foral 38/2007, de 22 de mayo, por el que se determinan las condiciones necesarias para la concertación de servicios residenciales para personas mayores dependientes. Decreto Foral 8/2021, de 29 de junio.

44. Decreto Foral 7/2015, de 24 de marzo, por el que se regula el régimen de acceso a los servicios residenciales y de centro de día para personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

45. Decreto 40/1998, de 10 de marzo, por el que se regula la autorización, registro, homologación e inspección de los servicios sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Títulos I, III y V.

San Sebastián, a 22 de diciembre de 2022.-La secretaria de la Junta de Gobierno de Kabia. (8748)